

ILUNTASUNA
Edurne Salaberria
Lezo, 11 urte

Kaleak ilun,
argiak itzalirik,
han ni
bakar bakarrik,
hotsak, zaratak,
alboko tabernatik.
Korrika, ihesean
ibili ezinik,
ate baten alboan,
zutik, tente,
hotzak dardaraz
eskularrurik gabe
zapatak zulaturik
tripa zorriak entzunez
janaria nork emango zain.

Ate alboan
hotzez dardarka
jatekorik ba ote
niretzat eskaka.
Atea, danba.
Muturren aurrean
negarrez,
kontsolatu nahian..
Han umea
beldurrez jota
zakarrontzira zihoala

jatekoa aurkitu nahian
poltsa zikinen artean
esperantza galduta.